

Hasi dira 1.go mailako ikasleak GEPko fakultatean

2016/09/07

Atzo hasi zuten GEPko hiru fakultateetan 350 ikasle berri inguruk ikasturte berria.

Lehengo egunetan, unibertsitatea, ikasketa planak,... eta zerbitzuak azaltzen zaizkie.

Ikasturte honetan, berrikuntza bezala, zerbitzuen azalpena ginkana baten bidez antolatu da, ikasleek beraiek topatu behar zutelarik zerbitzu bakoitzak egiten zieten galderen erantzunak.

Kirol Zerbitzuaren berri ere ginkana honen bidez ezagutu dute eta ideia positibotzat jo dugu. Orain, ikasturte honetarako antolatu ditugun ekintzak beraien gustokoak izatea espero dugu.

Ongi etorri MONDRAGON UNIBERTSITATEra.

